

zer

Unibertsitateko ikaslearen Estatutua Espainiako Gobernuak joan den urtarrilaren 1ean onetsitako araudi berria da. Araudi horrek lehenengo aldiz finkatzen ditu unibertsitateko ikasleen eskubideak eta betebeharrak, eta haien orientazioa eta irakasle eta langile espezializatuek garatutako tutoretza sistemen ezaugarriak definitzen ditu, ikaslearentzako laguntza deskribatzen du, kanpo praktikak ezaugarritzen ditu eta ebaluazio objektiborako eskubidea arautzen du, bai eta kalifikazioen komunikaziorako eta berrikuspenerako eskubidea ere. Azken urteetan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak abian jarri ditu alderdi horietako asko Europako Unibertsitate Eremu berriaren barnean.

Estatutuak arautzen du ikasleen ordezkaritza unibertsitatean eta beren parte-hartzea nazioko eta nazioarteko erakundeetan; bizikidetza sustatzen du; ikasleek, irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek osatutako unibertsitateko ardurakidetasun batzordeak eratzea aurreikusten du; deskribatzen du, halaber, ikaslearen lankidetzatza Unibertsitateko Komunitatearen arartekoarekin, zeinak bitartekaritza eta adiskidetzatza zereginak bere gain hartzeko modua izango baitu; eta jarduera fisikoa eta kirol jarduera indartzen ditu.

Beste puntu aipagarri bat da Estatuko Unibertsitateko Ikasleen Kontseiluaren sorrera, Hezkuntza Ministerioaren aurreko ordezkaritza bide zuzena. Unibertsitate bakoitzak kide bat izango du batzorde horretan.

zergatik

Erabaki hau hartzeko arrazoia da legedi eguneratu baten beharra dutela unibertsitateko bizitza kudeatzeko eta ulertzeko unibertsitateko hiru eragile nagusiek: ikasleek, irakasle-ikertzaileek eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileek. Horretaz gainera, Espainiako unibertsitateetako ikasleen eta arduradunen lan bateratuari eta partekatuari esker hezurmamitu da erabaki hori. Lan horretan hauek parte hartu dute besteak beste: ikasleen erakundeek, Gazte Kontseiluak, CRUEK (Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia), RUNAEK (Ikasleen Gaietarako Unibertsitateen Sarea, CRUEren arloko batzordea) eta desgaitasuna duten pertsonen ordezkaritza-erakundeek.

Horretaz gainera, estatutu berriak, 2007ko Unibertsitateei buruzko Lege Organikoaren xedapen bati jarraiki (LOMLOU), Europako Unibertsitate Eremuaren (EUE) espiritua eta 2003ko Berlingo Ministerio Biltzarrean hartutako erabakiak betetzen ditu. EUEk eta Berlingo Ministerio Biltzarrak esanbidez aitortzen dute ikasleen parte-hartzea goi mailako hezkuntzaren kudeaketa publikoan.

Unibertsitateko Ikasleen Estatutuak bai unibertsitate publikoetako ikasleak, bai unibertsitate pribatuetako ikasleak ditu aipagai; unibertsitateko hiru zikloetako ikasketa ofizialetan (gradua, masterra eta doktoretza) edo etengabeko prestakuntzako ikasketetan edota unibertsitateek eskainitako beste ikasketa bereki batzuetan matrikulatuak.

Bere aplikazio-eremuan sartzen dira unibertsitatearen mendeko ikastegi berekiak, atxikiak eta etengabeko prestakuntzakoak.

Gehiago ezagutzen du

el esto
.org

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa
Public University
of Navarre


excelencia
internacional
nazioarteko
bikaintasuna
international
excellence

www.unavarra.es

Zera...
unibertsitateko ikaslearen estatutua

zera...

Ikasleen eskubideak

Berdintasuna

- Ez diskriminatuia izatea arrazoi hauengatik: jaiotza, arraza edo etnia, sexua, erlijioa, sinesmena edo iritzia, adina, desgaitasuna, nazionalitatea, gaixotasuna, sexu orientazioa edo genero nortasuna, gizarte eta ekonomia egoera, hizkuntza egoera, kideetasun politiko eta sindikala, itxura, gehiegizko pisua edo gizentasuna, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo soziala.
- Tratu ez sexista jasotzea eta aukera berdintasuna.
- Unibertsitatean sartzeko eta egoteko aukera berdintasuna.

Prestakuntza eta ebaluazioa

- Ikasketetan programatutako jakintza eta gaitasun akademiko eta profesionalak lortzeko bermeak izatea.
- Ebaluazio objektiboa, eta, ahal bada, jarraitua.
- Prestakuntza pertsonala eta balioetan.
- Aurretiaz edo titulazio iraungietan lortutako jakintzak eta gaitasunak edo esperientzia profesionala aitortuak izatea.
- Kalitateko irakaskuntza prestakuntza.
- Irakaskuntza-aitorpena lortzea hainbat esparrutan parte hartzeagatik.
- Ebaluazio arauai eta kalifikazioen berrikuspen prozesuari buruzko informazioa jasotzea.
- Ikasketetan egindako lanen egiletza aitortzea eta lan horien jabetza intelektuala babesteko eskubidea.
- Sarbidea izatea bizitza osoko prestakuntzan.

Ikasleen betebeharrak

- Ikastea eta bere prestakuntzan era aktiboan parte hartzea.
- Unibertsitate komunitateko kideak eta beren lankideak errespetatzea.
- Unibertsitateko ondasunak zaintzea eta behar bezala erabiltzea.
- Ebaluazio probetan, lanetan edo dokumentu ofizialetan iruzurrezko prozedurarik ez erabiltzea.
- Era arduratsuan parte hartzea unibertsitateko jardueretan eta jarduera horiek ohiko eran garatzen laguntzea.
- Unibertsitateko estatutuak eta araudia ezagutzea eta betetzea.
- Segurtasunari eta osasunari buruzko barne arauak ezagutzea eta betetzea, bereziki praktiketako laborategiak eta ikerketa-inguruneak erabiltzeari dagozkionak.
- Unibertsitatearen izena, sinboloak eta ikurrak errespetatzea, eta horiek behar bezala erabiltzea.
- Ekitaldi akademikoak errespetatzea.

Parte-hartzea

- Unibertsitateko politikaren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea.
- Mugikortasun programetan parte hartzea.
- Laneratzeoko programen eta behatokiaren ezagutza eta haietan parte hartzea.
- Instalazio akademikoak erabiltzea.
- Boluntariotza jardueretan parte hartzea.
- Ordezkaritza aktibo eta parte-hartzailea izatea dagozkion gobernu-organismoetan.
- Informazioa jasotzea eta unibertsitatean irauteko araudiari buruz.

Kontziliazioa eta eskubide orokorrak

- Ikasketak eta familia bizitza eta lana bateragarri egitea.
- Aholkularitza eta laguntza jasotzea unibertsitateko bizitzan.
- Arriskuei aurrea hartzeari buruzko informazioa jasotzea eta bere osasuna bermatuko duten bitartekoak izatea.
- Bekak eta ikasteko laguntzak lortzeko modua izatea.
- Adierazpen askatasuna, biltzeko eta elkartzeko askatasuna.
- Bakoitzak aukeratutako unibertsitatean ikastea.
- Ez erabiltzea datu pertsonalak Norberaren Datuak Babesteko Legetik kanpo.
- Horietaz gainera, legeak eskubide espezifikoak jasotzen ditu Gradu, Master eta Doktoretzetarako, prestakuntza jarraituko ikasketetarako eta eskainitako beste batzuetarako, eta horien artean nabarmentzekoak dira irakaskuntza taldeen edo ikerketa lerroen aukeraketa, orientazio edo tutoretza pertsonalizatuak eta tutoretzapeko praktikak egitea eta ziklo amaierako lanetan, besteak beste.

- Unibertsitate komunitateko kideek diskriminatuak ez izateko duten eskubidea aktiboki erabiltzea eta sustatzea.
- Izendatuak izan diren karguei dagozkien ardurak betetzea.
- Ikasleek parte hartzen duten organo kolegiatuen jarduerak eta ebazpenak jakinaraztea ordezkatuei, eta organo kolegiatuetan aktiboki parte hartzea.
- Unibertsitatearen helburuak eta funtzionamendua hobetzen laguntzea.
- Ikaslearen unibertsitatearen estatutuetan jasotako beste edozein betebeharrak betetzea.



zera...

Zertan eragiten dien irakasleei

- Irakaskuntza planen prestakuntza eta informazioa.
- Ikasleari laguntzea tutoretza-aukera zabalaren bidez.
- Ebaluazio objektiboa eta, ahal bada, jarraitua, eta ebaluazio-proben programazioari eta kalifikazio sistemari buruzko informazioa ematea. Araudiak ezarritakoari jarraituko zaio.
- Ikasketak eta lana bateragarri egiteko aukerak eskaintzea ikasleei.
- Curriculum praktikak eta curriculumetik kanpoko praktikak sustatzea.
- Ikasleen lanen jabetza intelektuala bermatzea, eta beren egiletza aitortzea.
- Irakasleei subjektu aktibo gisa prestakuntza osoa eta kalitateko laguntza ematen laguntzea.
- Unibertsitateko arartekoari garrantzia ematea bere eginkizunak betetzen.
- Bizikidetza eta ardurakidetza sustatzeko batzordeetan parte hartzea.
- Aukera berdintasuna bermatzea desgaitasuna duten ikasleei.



Zertan eragiten dien administrazio eta zerbitzuetako langileei

- Ikasleari kalitateko laguntza bermatzea, baita ikaslea unibertsitatean sartu baino lehen ere, informazio eta orientazio programen sustapenaren bidez.
- Informazioa ematea irakaskuntza gaiei buruz, unibertsitateko bizitzari buruz, bekei eta ikasteko laguntzei buruz, laneratzeari buruz eta unibertsitate zabalpeneko jarduerari buruz.
- Lan arriskuei aurre hartzeari buruzko informazioa ematea eta unibertsitateko kideen osasuna eta segurtasuna bermatuko duten baliabideak izatea.
- Ikaslearen parte-hartze soziala, boluntariotza eta garapenerako lankidetza sustatzea.
- Datu pertsonalak Datuak Babesteko Legeak araututako helburuetarako bakarrik erabiliko direla bermatzea.
- Kirol praktika sustatzea.
- Egoitza zerbitzuen sarbidea eta kudeaketa arautzea.
- Ikasle ohien elkarrekin sorrera bultzatzea.
- Bizikidetza eta ardurakidetza sustatzeko batzordeetan parte hartzea.
- Aukera berdintasuna bermatzea desgaitasuna duten ikasleei.

